



Beltzak taldeko kadeteek amaitu dute denboraldia.- Ordiziako taldea izan zuen aurkari larunbat arratsaldean Babyauto ZRT/Beltzak taldeak Michelingo berdegunean. Aurtengo denboraldian hirugarren aldiz neurtu zituzten indarrak bi taldeek eta asteburuko partidaren aurretik garaipean bana zuen hamabosteko bakoitzak. Goierriarrak izan ziren jokoa jabe lehen minutuetan, baina Beltzak defentsa onak ezerezen utzi zituen Ordiziaren aukera apurrik. Pixkanaka, metroz metro eta golpez golpe, zelaieren kontrola berreskuratu zuten herriartekek, baina akats larri batek ordiziaren lehen entsegu ekarri zuen. Gaizki aterakoak *touch* bat probestu zuten kanpoko mutilek baloia lapurtu eta 32. minutuan, atsendaldiaren atarian, markagailuan aurrea hartzeko. Herriko morroskoak ez dira ordea erraz amore eman zaleak, eta kontzentratuta, motibatuta eta partida iraultzeko Samos ekin zieten bigarren zatiko 35 minutuetan. Presio gogorra eginda, zelai erdilik hasi zuten jokaldi azkarra Xalbat Amilibia, Andoni Amonariz eta Aimar Mitxelena eta azken honek berdinketa ezarri zuen Michelingo markagailuan. Jokoa intensitate handia izaten jarraitu zuen hamailatan bildu ziren errugbizeleen gozamenarako. Izan ere, epailearen lan fin eta errespetauaren bitartez (talde bakoitzeko kapitainak soilik hitz egin dezake epailearekin eta erabakiak txintxik esan gabe onartzen dira), oso partida lehiatua ikusteko aukera izan zen. Denboraldia ixten zuen partidari baina bat jartzearen, agian, bi minuturen faltan lasarteoriarren aldaratze batatik eta Ordiziak entsegu egin zuela garaipea Goierria eramatea. Ikusleen txalo-zaparrada eta irabazleak galtaizleari egiten dion pasiloa izan zituzten gurek sari. Ez da gutxi. Errugbia ezberdina delako.

2 HEZKUNTZA

Lanbide heziketa euskaraz egiteko aukera

"11 aukera 11 lan" lelopean zabaldu dute Buruntzaldeko Udalek eskualdean Lanbide Heziketa eskaintzen duten zentroen esku-orria. Matrikula egiteko epea maiatzaren 27an zabaldu eta ekainaren 6an itxiko da. Ikasle batzuekin bildu eta euren esperientzia zein den azaldu digute.

4 GIZARTEA

Gure Esku Dago ekimenaren giza-katea larunbatean

Herriko Gure Esku Dago lantaldeak larunbata goizean Kale Nagusian ekainaren 8rako giza katearen entsegu orokorra burutu zuen. Guztira 577 lagunek erosi dute euren metroa eta jai giroan giza katea, mosaiko erraldoia eta Xumelakoek Kataluniatik ekarritako olibondoa landatu zuten Askatasunaren parkean.



5 TOPAKETA

Batukada doinuak herriko txoko guztietan

Herriko Dinbi-Banda batukada taldeak antolatutako Euskal Herriko II. Batukada Topaketan Taupada, Kulanbaye, Buruntzantzan, Zaparrada, Kaleanbatu, Batukale, Zo-Zongó eta Beriba taldeak jo eta su aritu ziren larunbatean euren instrumentuei doinu bizi eta alaiak ateratzen.

ELECTRICIDAD ARREGUI
www.electricidadarregui.com
 Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
 Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 372521

ETORRI GURE ESKAINTZA BEREZI ETA BERRIAK IKUSTERAI

6 ANBILKORREKIN TAE 0%

469€ LAVADORA
429€ BOSCH
849€ LAVADORA
1.049€ LAVADORA
1.199€ LAVADORA
1.490€ LAVADORA
429€ LAVADORA
79€ LAVADORA
399€ LAVADORA

HEZKUNTZA

Lanbide heziketa ere euskaraz

Matrikula egiteko epea maiatzaren 27an zabalduko da eta ikasleek ekainaren 6a bitartean izango dute aukera

"11 aukera 11 lan" lelopean zabaldu dute Buruntzaldeko udalek eskualdean Lanbide Heziketa eskaintzen duten zentroen eskaintza jasotzen duen esku-orria. Gero eta ikasle gehiago dira lanbide heziketa euskaraz egitera animatzen direnak azken urteetan, izan ere, gurean D ereduaren zabaldundek eraginda, modu naturalean euskaraz ikasten jarraitzeko hautua egiten dute gazteek. Ikasle batzekin bildu eta euren esperientzia zein izan den azaldu digute.

TXINTXARRI

Andoni Urdanpilleta, Jon Urretabizkaia, Eneko Elosegi, Idoia Iribar eta Beñat Esnaola ikasleak Lanbide heziketan izandako esperientziak mintzatu ziren. Hauen hitzetan egun ikasketak euskaraz egiteko arazorik ez dago, hala ere, praktikak egiteko garaian edota hitz teknikoak erabiltzerakoan, sarri jotzen da gaztelera.

Matrikula egiteko dauden ikasleak animatzen dituzte zalantzak gainditu eta euskaraz ikatera.

Buruntzaldeko udalek diruz laguntzen dituzte lanbide heziketa eskaintzen duten zentroak ahalik eta neurri handienean, euren eskaintza euskaraz egin dezaten. Gurean Hernani BHLn, Usurbilgo Lanbide eskolan, Andoaingo La Salle Berrozpen, Andoaingo Zine eta bideo eskolan, Leizaran BHLn eta Urnietakoa Salesiarretan daude goi mailako heziketa zikloak.

Euren esperientziatik hitz egin zuten mahai inguruan elkar-tuta Andoni Urdanpilleta, Jon Urretabizkaia, Eneko Elosegi, Idoia Iribar eta Beñat Esnaola ikasleak.

Euskaraz hautatu zituzten euren ikasketak hala ere, zenbaitetan irakasgaiak gaztelaz egin dituzte edota praktikak egiteko garaian, gaztelera izan dute lanerako hizkuntza nagusia, hala ere "irakasle eta lankideekin, eus-

kaldunak izanda, harreman pertsonala bi esparruetan euskaraz egiteko aukera izan dugu". Lankideekin "barrautsi esan beharrean, broca esanda lehenago ulertzen zaituzte eta azkenean halako hitzak, euskaraz nola esan badakigun arren, gaztelera erabiltzea jotzen genuen."

Ohitura aldatu

Idoiaiek bere garaian administratza ikasketak egin zituen gaztelaz. 20 urte lanean aritu ondoren, langabezia geratu eta erabaki zuen jakintzak eguneratzea.

"Goi mailako inbentarioa eta finantzak zikloa egitea erabaki nuen Zubietan eta eskalduna izan arren, ikasketak guztiak gaztelaz egin nituzen beldurra nuen orain euskaraz egitera. Jendarekin hitz egin eta animatu ninduten ikasketak euskaraz egitera eta oso pozik nago egindako hautuarekin".

Idoiaren ustez, gazteek zalantzarik ez dute ikasketak burutzeko hizkuntza hautatzerakoan, "ixikitik euskaraz egin dute eta jarraitzeko aukera dagoenez, hala egiten dute. Helden artean berriz bestelakoa da egoera. Kezka eta zalantzak dituzte, beti gaztelaz ikasi eta hitz teknikoak ez ulertzearen beldurra da nagusi. Hala ere, nire esperientziatik esan behar dute, oso aberasgarria dela hitz horiek ere euskaraz nola diren ikas-tea".

Jon Urretabizkaia eta Eneko Elosegi Salesiarretan



Andoni Urdanpilleta, Jon Urretabizkaia, Eneko Elosegi, Beñat Esnaola eta Idoia Iribar.

zenbait ikasgai gaztelaz eduki arren, "kasu batzuetan zenbait ulertu ez eta irakasleek arazorik ez dute izan euskaraz azalpenak emateko".

Andonik La Sallen batez ere euskaraz egin ahal izan ditu ikasketak guztiak eta baita Beñatek ere Zubietan. Azken honek aurretik unibertsitate ikasketak burutu zituen. Beratan hautazko irakasgai batzuk ere gaztelaz zeudela azpimarratu zuen.

Egun ingelesez ere ikaste-ko beharra dutela aipatu zuten. "Makina batzuk ingelesez daude programatutak eta hauek nola programatu ikaste-ko ingelesez egin behar dugu". Hala ere, irakasleek materiala euskarazteko ahalgina ere egiten dutela azpimarratu zuten.

"Jendeak irudipena dauka lanbide heziketan gaztelera dela nagusi agian lantegietako giroekin lotzen dutelako baina ez da horrela. Praktiketan denetarik aurki daitezke baina egun lankide eskualdu-

nak beti egoten dira eta hauekin euskaraz lan egiten duzu".

Egiteke asko

Praktikak egiteko garaian, euren hitzetan aldean dago euskaraz planak garatzen dituzten enpresak dienean.

Plana dutenek behintzat inprimaki guztiak euskaraz badituzte eta nolabait esan daitezke, beste jarrera bat dagoela hizkuntzarekiko. Hau ez dutenetan oraindik asko dago egiteko, "bezeroei zerbitzua euskaraz bermatzen dieten enpresak badaudela kontutan izan behar da ere".

Euskaraz materiala badago baina zenbait esparrutan oraindik beharra ba omen dago

ikasleen ustetan gehiago lantzeko. "Hitz teknikoek dago-kionez, eskotan zailak dira ulertzen, arrotzak egiten zaizkigu". Egia da ohiurak aldatu eta hauek pixkanaka gehiago erabiltzen joan behar direla.

Balioak

"Belaunaldi berriak eskualdunak gara beraz pixkanaka lantegietako hizkuntza aldataketak gertatzea posible izango da urte batzuetan. Gure esku dago".

"Zalantzarik gabe ikasketak euskaraz egitera animatu behar da jendea".

Euskaraz ikaslea balio erantsi bat dela ulertzen dute ikasleek.

"Zalantzarik gabe lanbide heziketa ikasketak euskaraz hautatzea animatzen ditugu orain matrikulatu behar diren ikasleak, gazte zein heldu

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFko Kultura eta
Euskararen Departamentua

Argitaratzailea:

Ttatum Kultura Elkarte

Nereza Espagña, Maider

Azurmendi, Jon Albusa E

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Antola

publizitatea@ttatum.com

administratioa@ttatum.com

Laguntzaileak:

Unai Muntoa, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maialen Anit, Aiser

Ondozola, Jone M. Hernandez,

Jeuxux Arretxe, Palko Aspiztarte, Edo

Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

Aleak zenbakiko: 7800

XIRIMIRI ELKARTEA



Banaiz Bagara eta Solaskide egitasmoak "Munduko arrozak" ikastaroa eskaini zuten ostegunean Xirimiri elkartearen.

Mende larudena ospatzen

Xirimiri elkartearen 25. urteurreneko egitaraua martxan da

Xirimiri elkartearen 25. urteurreneko ekintzak hasi dira. Asteburuan adin ezberdineko jendearentzat ekintzak izan dira eta hainbat herritarrek bat egin dute ospakizunak aurera doaz. Ostegunean, Banaiz Bagara eta Solaskide egitasmoak antolatuta, Munduko arrozak ikastaroa eskaini zen Xirimiri elkartearen.

TXINTXARRI

Zinea, formazio jardunaldiak, ikastaroak, mendi ibilaldiak... Xirimiri elkartearen 25. urteurreneko ospakizunak aurera doaz.

Ostegunean, Banaiz Bagara eta Solaskide egitasmoak antolatuta, Munduko arrozak ikastaroa eskaini zen Xirimiri elkartearen.

25 bat pertsona bildu ziren elkartearen. Giro ede-



Xirimiri elkartearen hainbat lagunek Buruntza mendira egin zuten txangoa larunbatean.

reen, Maffe (Senegal), Gallo Pinto (Nikaragua), paella eta arzoa txinatar erara sukaldatu zituzten eta bide batez, euskara lantzeko aukera ere izan zuten.

Amaileran, arroz ezberdinak dastatzeko aukera izan zuten eta ez zen umorerik falta izan.

Mendi irteera eta musika

Larunbatean, bertze, goizean Asakatasuna brigadek eskaini-

tako formazio mintegien bigarren saioa izan zen Elebeltz topagunean.

Bestalde, elkartearen hainbat lagunek Buruntza mendira egin zuten ibilbidea eguraldi onak lagunduta. Ton-torrean talde-argazkia atera eta buelta egin zuten.

Gauean, Trumoi taberna Txoni & JulenK herriko DJ-en musika saioaz gozatu ahal izan zen gaueko ordu txiki-tara arte.

PSE-EE Goiegiko hotelaz kezkatuta

Lasarte-Oriako PSE-EE-k Goiegiko Ibarrean eraiki behar zen hotelaren proiektuarekiko Bilduk duen arduragabekeria salatzen du.

"Alkatezaren sartu zenetik, Bilduren asmoa Goiegiko ibarrean eraiki behar zen lau izaretako hotelaren proiektua bertan behera uztea izan da", adierazi du alderdiki komunikabideei igorritako oharrean. "Horretarako proiektua moldatu zen eta enpresa sustatzailearentzat bidezinez itzatea ekarri zuen. Sozialistek aldaketa hori salatu genuen eta denborak arazoia eman digu".

Harremanik ez

Astearteak ohiko udalbatzarrean, Jesus Zaballus PSE-EEko bozeramaileak hotelaren proiektuaren berri galdutu zuen eta Bilduk hila bete hauen enpresa sustatzaileekin harremanetan jarri ez direla erantzun zuen.

Alderdi sozialista eta bere bozeramailearentzat, Jesus Zaballus PSE-EEko proiektu estrategikoen kudeaketan izan duen utzikaria.

"Erabaki honekin 40 herritarrentzako lana galtzen da. Izan ere, PSE-EE-k enpresa sustatzaileekin hitzarmena

sinatu zuen, non herritarren kontratazio eta kanpoko igeri-lekuaren erabilera publikoa lehenetsitzen baitziren".

"Gobernuan izan den hiru urte hauetan Bilduk gure herriarren etorkizunarentzat garrantzitsua zen proiektua gelditu du", adierazi dute.

Era berean, proiektua galtzeko herriarren ostalaritza eta merkataritzan ekarri ditzakeen galerak ere azpimarratzen ditu alderdi sozialistak oharrean, "ezaugarri hauen hotel batek, erabilizaila kopuru handia ekarri zezakeen, honek zituen logela eta batzarretarako gela kopurua dela eta".



AISIA

Jolasekin ikasi eta gozatu

Haur ugari eta heldu batzuk ikusi ahal izan genituen ostegunean, Okendo plazan "Jolasen altxorra" ekimenean gozatu.

Abestiak, harrapaketa jolasak... gutzia ezagutzeko eta balo-reen eta batez ere, hizkuntzaren transmisioa egiteko.

Hurrengo saioak Basaundi bailaran, maiatzaren 22an, 18:00etan eta Zabaleta auzoan, maiatzaren 29an, 18:00etan izango dira.

EUSKARA

Aurrera pausok elkarlanean

Udaltop Soziolinguistika jardunaldiak burutu dira Lasarte-Orian.

Ostegun eta ostiralean, Euskal Herriko Euskara batzordeetako teknikariak, soziolinguistika adituak eta hainbat erakundeetako kideak bildu ziren Manuel Lekuonaran erakundearen eskararen sustapena bultzatzeko.

Ikerketa, esperientziak eta elkarlana izan ziren nagusi jardunaldietan udaletan edo erakunde ezberdinetan proiektu eta ideia berriak garatu eta martxan jarri ahal izateko.



KIROLA

Lizarrusti-Andoain 12 ordutan

Maiatzaren 10ean, Lizarrusti eta Andoain arteko ibilbidea egin zuten 17 herritarrek.

Goizean goiz Lizarrustitik abiatu eta 12 orduko bidea burutu zuten. Eguraldi ederra izan zuten arren, lainoari aurre egin behar izan zioten ibilbideko tarte batean.

Gainera, hamar ordu ibili eta gero, Tolosara iritsi eta Belabieta mendira igotzeko erronka bota zuten. Adierazi digutenez, inork ez zuen atzera egin eta mendia igo ostean, Andoainera iristeko azken kilometroak egin zituzten.

Lasarte-Oriara iristean Xirimiri elkartearen indarrak berreskuratzeke afaria izan zuten. Momentu hunkigarri bat ere izan zen elkartearen, "Joxean Salsamendi eta Fatik bederzati urte daramatzate irteera hau antolatzen eta bertso batzuk prestatu ditzaizkien omenaldi modura", adierazi zuten ibiltariak.

GIZARTEA

Europa, Pirinioak eta Euskal Herria

Ostegunean, Enrique Ayerbe goizaletza Ganbo Iturri elkartearen auzo-mintegien barruan hitzaldia eskaini zuen.

Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrek Euskal Herriko eriferentzia piriniararen testuinguru, alderdi kulturalak zein historiko-geografikoak ezagutu ahal zituzten.

Era berean, Ayerbe Pirinioak lotune izan ditzaketen erki-degoen arteko harremanak mintzatu zuen eta hauek elkarrekin, nortasun piriniarra indartzeko, Europan esku-hartzeko izan dezaketen gaitasuna azaldu zuen.





Xumelakoek Kataluniatik ekarrirako olibondoa landatu zuten.



Ostiral gauean Joseba Tapiaren kontzertua izan zen Villa Mirentxun



Kale Nagusian osatu zen giza-katean jai giroa izan zen nagusi.

Ekainaren 8rako prest

Lasarteoriatarrek entsegua egin zuten larunbatean

Herriko Gure Esku Dago lantaldeak larunbat goizean Kale Nagusian ekainaren 8rako giza katearen entsegu orokorra burutu zuen. Guztira herrian 577 lagunek erosi dute euren metroa eta jai giroan giza katea, mosaiko erraldoia eta Xumelakoek Kataluniatik ekarrirako olibondoa landatu zuten Askatasunaren parkean. Bezeperan, ekimenaren alde, Joseba Tapiaren kontzertuaz gozatu ahal izan zen Villa Mirentxun.

TXINTXARRI

Larunbatean, eguerdian izan zen hitzordua Brigitarren plazan. Bertara pixkanaka hurbiltzen hasi ziren herritarrek giza katean parte hartzeko, gogotsu.

Antolatzaileen argibideak adi-adi jarraituz giza katea osatzen joan ziren herritarrek Kale Nagusian ekimenerako espreski itxitako eremua bete arte.

Ikurriña erraldoi bat eta Gure Esku Dago egitasmoaren

irudia pasa zuten herritarrek eskutik-eskura.

Ondoren, komentuaren aurrean elkartu zituzten herritarrek eta Oihana Beltraneck eskerrak eman nahi izan zizkien parte hartzaile guztiei. Erabakitze eskubidea aldarrikatzea herritarren esku dagoela aipatu zuen.

Kataluniatik elkartasuna


“Denon artean historian kapitulatu berri bat idaztera goaz eta, ez ahaztu aldaketak herriek bideratzen dituztela eta ez

beste inork, herriari dagokio zer izango garen erabakitzea”.

Jarraian Xumelako Mari Jose Eizmendi eta Gotzon Apaolaza oholtzara igo eta Kataluniako egonaldiak mintzatu ziren, bereziki, han adierazitako elkartasuna aipatuz. Katalanez “Els Segadors” abestu zuten, bertaratutakoen txalo zaparrada jasoz.

Mosaiko erraldoia osatu zen ostean eta ekitaldiari amaiera emateko, olibondoa Askatasunaren parkean landatu zuten. Xumelakoek zuhaitzaren aurrean bi kanta eskaini zituzten eta “epo itai ta ye” abestiarekin jendea dantzan jarri zuten.

Hurrengo hitzordua, ekainaren 8an izango da Uharte Arakilen. Bertara joateko autobus txartelak eros daitezke oraindik..



Mosaiko erraldoia osatu zuten giza katean parte hartu zuten herritarrek.



Ixura hauxe zuen Okendo plazak arratsaldeko emanaldiaren orduan. Kolorea eta alaitasuna. 2014ko maiatzaren 16ra arte!

Dinbi eta danba!

II. Batukada Topaketa egin dute herrian asteburuan


Herriko Dinbi-Banda batukadak Udalarekin elkarlanean gidatuta eta antolatuta, danbor, txilibitu eta makilen burrunbak hartu zituen Lasarte-Oriako txokoak larunbatean. Egun osoan zehar, Taupada, Kulanbaye, Buruntzantzan, Zaparrada, Kaleanbatu, Batukale, Zo-Zongó eta Beriba taldeak jo eta su aritu ziren euren instrumentuei doinu bizi eta alaiak ateratzen. Perkusioaren indarrak, dantzan jarri zituzten herritarrak eta goizean auzuneetan ibili ostean, bazkari herrikoia egin eta arratsaldean eskaini zuten emanaldi nagusia Okendo Plazan.

Maidar Gorostegi eta Ibon Fernandez Gazteko esatariek talde bakoitzaren aurkezpena egin, suziria bota eta Añorgako Eoniar elektrotxarangeekin tabernaz taberna ibili ziren batukadako kideak.

Amaiera borobila

Indarrak berreskuratzeko herri bazkarian paella ase arte jan eta arratsaldean batukada-prozesioa hasi zuten talde guztiek herriko kaleetan barrena Okendoko emanaldi nagusira iritsi arte.

Jendetza bildu zen eta Dinbi Bandak goizean bota ez zuen izerdia ateratzeko aukera izan zuen emanaldi indartsu batekin. Egunari amaiera emateko guztiek batera koreografia gartsua osatu zuten Zo-Zongoko "pailazo beldurgarriek" gidatuta.



TXINTXARRI

Herria sambodromo bilakatu zuten larunbatean egun osoan zehar Euskal Herriko txoko ezberdinetatik gurea bisitan etorri ziren batukada taldeek.

Goizean goizetik hasi eta iluntzera arte sekulako giroa izan zen herriko kaleetan eta jende askoren atentzioa deitu zuten han eta hemengo dan-

bor eta makil hotsek. Horretaz gain, haurrentzako taler koloretu eta umoretsuak ere izan zituzten herriko txiki-txoek gozagarri.

Goizeko egitarauari dagokionez, Zumaburun, Atso-bakarren, Sasoetan, Erdigunean eta Okendo plazan bertan aritu ziren eskeletoak eta ipurmasailak mugitzen eguerdian txupina botatzeko ordua iritsi zen arte.



Iazko eguraldi txarraren arantzaxoa atera eta gustura atera zuten argazkia Dinbi-Bandako kideek, eguzkipean.

Euskal Herriko txoko askotatik egin zituzten bista zortzi batukadak.

ARETO-FUTBOLA



Aldaz HK-ek taldea babesteari utziko dio. Balteke taldearen azken argazkia izatea.

ISU taldeak finala jokatuko du

Gipuzkoako txapelketako finalen izango da ISU Leihoak taldea. Maiatzaren 10ean, jokatutako finalerdian bina berdindu zuten Oiarzunen aurka eta penaltietan irabazi zuten Lasarte-Oriako taldeak.

Oiarzun nagusi izan lehen momentuetan, baina ISUK aurre hartu zuten jaurtiketa garbi batekin. ISUren defentsa lana ederra izan zen eta atseandaldira 1 eta Oekoarekin joan ziren.

Bigarren zatia ez zen ongi hasi, defentsa batek bere atean sartu baituzten eta oiarzunek berdinak lortu zuten. Baina talde jokaldi baten ostean, Eneko Molinaren taldeak, Jon Arcoaren bitartez, 2 eta 4 tekoa ezarri zuten markagailuan. Oiarzuarrek norgehiagoka berdindu nahian, atezain jokalaria

atera zuten eta honek lortu zuten berdinketa.

Penaltiki bota behar izan ziren irabazlea erabakitzeke. Honetan ISU gailendu zen, 3-2.

Era honetera, ISU Leihoak taldeak Bilkoen Legorreta taldearen aurka jokatuko du finala maiatzaren 24ean.

Aldaz H.K.

Bestalde, Nazional kategorian, hirugarren mailan jarraitzeko txartela eskuratu du Aldaz H.K. taldeak. Oscar Garcarien mutilek denboraldiko azken partida jokatuko zuten kiroldegian Mallabiaren aurka eta 5-5 berdindu zuten.

Maiolari eutsi dioten artean, datorren urtean Aldaz HK-ak talde babesteari utziko dio. Dena den, lanean ari da jokalaria taldearen urterako babeste bila, baina oraingoz etorkizuna airean dago.

IGERIKETA

Ibarburuk Euskadiko errekorra

Hainbat domina Tarbes-eko nazioarteko txapelketan

Buruntzaldea IKT-ko bost gazte Gipuzkoako selekzioarekin izan ziren aurreko asteburuan, Tarbes-en. Lehiaketa ederra egin eta domina uzta ekarri zuten gazteek.

TXINTXARRI

Maiatzaren 10 eta 11n, Buruntzaldea IKT-ko Ainara Garcia, Nahia Jie Villamediana, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena eta Iñigo Ibarburu Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu izan ziren Tarbes-eko nazioarteko lehiaketan. Itsaso Tolosa ezin izan zuten Tarbesen egon gaixo zegoela eta.

Guztiak finalatan izan ziren lehiatu, baina emaitzarik aipagarriena Iñigo Ibarburuk 50 m. tximeleta proban gazteen mailan lortutako lehen postua da. Izan ere, 26,04 segundorekin Euskal Herriko Errekor berria egin zuten lasarteartiar gazteak. Aurreko errekorra Yeray Lebonek zuen kan, 26,11 segundotan.

Honetaz gain, marka hoi esker, Udako absolutu mailako Espainiako txapelketarako txartela ere lortu zuten.



Iñigo Ibarburu tximeleta proban lehia bizian.

RB PHOTO

100 m. tximeleta proban ere garaile izan zen gaztea eta 200 m. librean hamargarren. 4x100 libre eta 4x100 estilo probetan ere junior taldean parte hartu zuten eta brontzezko eta zilarezko dominak eskuratu zituen.

Lan ederra guztiek

Bestalde, Ainara Garcia 50 m. eta 200 m. bular probetan bere marka hobetu zuten eta bere mailako hirugarren izan zen 50 m. bular proban. 4x100 estilo proban ere izan zen lehiatu eta laugarren amaitu zuten taldeak.

Nahia Jie Villamediana ere edeki moldatu zen eta 100 m. tximeleta proban bere marka pertsonala hobetu zuten. Gainera, bere mailako garaipena

eskuratu zuten. 200 m. bizkar proban ere marka pertsonala hobetu zuten.

Mikel Esnal ere ez zen gaizki ibili 50 m. libre proban hirugarren amaitu zuten eta bosgarren izan zen 100 m. libre eta 50 m. bizkar probetan. Gainera, senior mailako taldean egon zen erreleboetan eta 4x100 m. librean urrezko domina eskuratu zuten; estloetan brontzezkoa.

4x100 estiloko erreleboan ere Haitz Mitxelena izan zen lehiatu eta beraz, brontzezko dominan eskuratu zuten. Bestalde, Haitzek tximeleta probetan parte hartu zuten eta 100 m. proban seigarren izan zen eta 200 m. proban beriz zazpigarren.

PILOTA

Lasarte-Oriak aurrera egin du herriartekoan

Gipuzkoako herriarteko txapelketan final-hamaseirenak gainditu dituzte herriartek Zestoari 4-2 irabazita.

Aurreko astean etxetik kanpo 0-3 irabazi ostean, larrixeago ibili dira asteburuan Michelingo pilotalekuan, baina aurrera egin dute kadete eta senior mailetan galdu arren.

Kadete mailako bikotea Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasolak osatu zuten eta Mendizabalen eskutu minak gora-behera, partida txukuna egin zuten 14-22ko emaitza galdu arren.

Jubenilek pronostikoak bete zituzten. Asier Artea eta Haritz Solano 22-16 gailendu zuten lanak eman zituzten Zestoako bikotea. Partida hau irabazita, final-zortizenetako txartela segurtatu zuten matematikoki.



Herriarteko txapelketan final-zortizenetan aritzeko txartela lortu dute. VALLES

Inolako presiorik gabe jokatutako seniorren azken partidan, Haritz Urkiak eta Mikel Eloiak amore eman behar izan zuten zestoarren aurka 12-22 galduta.

Besain dute zain

Pozik zen Jose Felix Solano prestatzailea final zortizene-

tarako txartela lortuta: "denboraldi hasieran jarri genuen helburua bete dugu. Datorren astean etxean jokatuko dugu joaneko kanporaketa eta egia esan badakigu seniorretan talde ona dutela besaindarek, baina kadete eta jubnil mailerako partidetan ez dakigu zer topatuko dugun".

GIMNASTIKA



Sanz Gipuzkoako bigarren

LOKEko gimnastak bi finalatan izan ziren lehiatu joan den asteburuan, Gipuzkoako Eskolarteko B txapelketan eta Udaberri txapelketan. Emaitza onak lortu zituzten gimnastak eta Naroa Sanz Gipuzkoako txapeldundera izan zen.

Maiatzaren 10ean, larunbata, Gipuzkoako Eskolarteko B txapelketa ospatu zen Ordizian. Honetan LOKEko infantrial B taldeak eta Naroa Sanzek parte hartu zuten.

Sanzek uztaita eta pilotarekin egin zuten lan eta bigarren eta laugarren izan zen, hurrenez hurren. Honek bigarren postua eman zion eta

Gipuzkoako txapeldundera titulua ere bai.

LOKEko arduradunek azaldu dugutenez oso emaitza ona da. Gainera, "Naroa infantrial B mailako lehen urtean lehiatu du eta 16 gimnastatik bigarren geratu da".

Infantrial B taldeari dagokionez, bost uztaietan egin zuten lan eta bederatzigarren izan ziren.

Bestalde, igandean Hernanin Udaberriko txapelketa izan zen eta bertan alebin taldeak parte hartu zuten beste 33 talderekin batera. Lanaberri taldea hamaikagarren izan zen.

Agenda

Ostirala 23, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Kantugintza eta bertsoak

Txio Txiorrotxio bertso-saio berezia. Aurten kantugintza da gaia. Abesti ezagunak, umorea, dantza... denetarik izango da. Noski, ezin bertsoak falta. Maialen Lujanbio, Xabi Paia, Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariak oholztan gertatzen dena azaldu beharko dute haien hitzetan. Sarrera, internet bidez, 3,24 euro; leihatilan, 3,50 euro.

Larunbata 24, 11:30ean
Herri kirolak. Eskualdeko proba mixtoa; Aitzaga, Irunberri, Herria eta Ximirin artean.
Larunbata 24, 14:30ean
Bazkari herrikoia egingo da. Haurrek 14:00etan bazkalduko dute. Bazkaloste girotua, Mikel Karton eta Berto Eskolako kideen eskutik.
Larunbata 24, 22:30ean
KWBD, UK BILL, AFU, Tajon Prieto y Los Kuajolotes taldeen kontzertuak.
Igandea 25, 11:30ean
Marmitako txapelketa egingo da. Izena ematea, Gure Etxea tabernan edo elkarteetan, maiatzaren 21a baino lehen.
Igandea 25, 12:00etan
Xumelarekin kantujira egingo da eta 14:00etan, urteurren ospakizunei amaiera emango zaie.

Dantzari txiki eguna

LASARTE-ORIA
Igandea 25, egun osoa
Erketz EDT taldeak antolatuta, XXVI. Dantzari Txiki Eguna ospatuko da. Sei dantzari taldek, Erketz txiki eta Kukuka dantza eskolako taldeak barne, herriko kaleak girotuko dituzte haien dantza eta musikarekin.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzaren amaiera arte
Bizker-eko Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

EMAKUMEEN ZENTROA
Maiatzaren 16tik ekainaren 27ra
Gehituk antolatutako "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" erakusketa ikusgai.

Lasarte-Oria

Hitzaldia

EMAKUMEEN ZENTROA
Asteazkena 21, 18:00etan
"Etxeko Langile, ezagutu itzazu zure eskubideak" hitzaldia eskainiko du Lorea Urretxa, Bizkaiko etxeko langileen elkarteak kidea.

Larunbata 24, 22:00etan
Citizen Kane eta Adrenalized taldeen eskutik Punk garage doinuez gozatzeko aukera.

ORBELA BELARDENDA
Ibaitz Nikolarekin djeridoak doinuek entzuteko aukera izango da. Talkalive, Olatu Talka 2014 ekimeneko ekintza.



AVENIDA TABERNA
Ostirala 23, 19:00etan
Bem Baba e Uruburu taldearen reggae doinuez gozatu ahalako da. Talkalive, Olatu Talka 2014 ekimeneko ekintza.

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 23, 00:00etan
Francisco del Mundo dj-ak musika elektronikoz betetako saioa eskainiko du.

Dokumentala

ZULO ARETOA
Larunbata 24, 20:00etan
"Kampa. 20 años de sueños y escorb" dokumentala eskainiko da.

Xirimiri 25. urteurrena

ILARGI TABERNA
Ostirala 23, 22:30ean
Big Time Sound System DJ-ek musika jarriko dute: reggae, ska, soul etab.

OKENDO PLAZA
Larunbata 24, 10:00etan
Futbito partida.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren ome-nezko meza berezia ospatuko da maiatzaren 25ean, igandean, eguerdiko 12:30ean.

Zabaletako I. Herri Krosa

Zabaleta azukoko festen baitan, maiatzaren 31ean, larunbata, Zabaletako I. Herri Krosa antolatuta dute.

Goizeko 11:30ean Zabaletako plazan izango da irteera eta helmuga. Ibilbideak 5 kilometro izango ditu. Izena ematea irekia dago dagoeneko. Inskripzioa azukro denda egin behar da, 3 euro ordainduz; egunean bertan ere aukera izango da. Dorsalast lasterketa aurretik banatuko dira.

Galdutako gauzak

Aztoratuko Erromeria egunean Ttakun elkarteak kideek Quechua markako txaklo beltza, L tamainakoa aurkutu-zuten arkupeko bankuetan. Ttakuneko bulegoan dago jantzia beraz galdu duenak harrera orduan jaso dezake.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruña artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitez lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako ome garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko Lagunak taldeak astartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berri ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeak gimnasiaon dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztekoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Zuzenketa

Jose Mari Puldainek eskaintako hitzaldian akatsa

Martxoaren 31ko TXINTXARRI-n, hau da 1162. alean, jaso genuen albiste batean informazioa oker eskaini genuen. Zenbaki horretan BAI plataformak antolatutako hitzaldia berri ematen zen.

Hitzaldia hondakin kudeaketari buruzkoa izan zen eta bertan hizlari aritu ziren Jose Mari Puldain, Natxo Izeta, Luisamari Omeatxea eta Patxi Amategi.

Hain zuzen, Jose Mari Puldainek emandako azalpenak jasotzerakoan, "Alemaniako hainbat herrietan marxan ari diren hondakin kudeaketa sistema erakutsi zuen" jarri genuen eta bakarrak mintzatu zela argitu nahi du hizlariak. Bestalde "Era berean, tratamendu mekaniko-biologikorako, TMB planten funtzionamendua azaldu zuen. Materia bizigabea sortu eta hauek gordailu edo "zabortegieta" eramatzen direla azpimarratu zuen" jarritzen zen albistearren jarraitpena.

Hitzaldia gaztelaz izan zen eta materia bizigabea esan ez zuela alipatu behar da, "ez da inerta TMBtik ateratzen dena eta hala ulertzen da informazioan" argitu nahi izan dio TXINTXARRI-ri Puldainek.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Dendek produktuak eskaintza bereziki ateratu zituzten kalera.



Haurrentzako ekintzek arrakasta handia izan zuten Aterpearen Udaberriko festan.

Egun osoko festa

Aterpearearen ekimenak harrera ona izan zuen

Herriko merkatari eta ostalarien elkarteak antolatuta ostrialean egun osoan zehar ekintza desberdinak izan ziren herrian. Goizetik hasita, 26 denda eta 5 tabernetan eskaintza eta deskontu bereziak izan ziren. Dendetako batzuek euren produktuak kalera ateratu zituzten eguraldi ona medio. Ekintzaren helburua herriko denda txikitzen erosketak sustatzea izan zen.

TXINTXARRI

Eguraldi onak lagunduta, ostrialean Aterpeak udalaren laguntzarekin antolatutako Udaberri festak herritar andana erakarri zuen.

Goizetik dendek euren produktuak kalera ateratu eta

izan ziren haurrentzat, Zirko berezia egon zen Oriamendi plazan eta honetan Rafala magoaren trukoekin gozatu ahal izan zuten haur zein helduek. Honek Stabri panpina izan zuten aboan ikuskizun osoan.

Andapa plazan moto dotoreak ikusteko aukera izan zuten herritarrek. Urruzola dendan berri, Porrotx egon zen umeekin aragazkiak ateratzen eta ilara luzeak ere egin ziren bere sinadura eskuratzeko.

Zumaburu liburutendaren haurrek marrazki lehiaketan parte hartu ahal izan zuten.

eskaintza eta deskontu bereziak eskaini zizkieten herritarrei. Elkarteak bazkide diren tabernetan pintxo eta kafeak euro batean egon ziren. Bereziki arratsalderako prestatutako ekitaldi bereziak bildu zuten jende gehien. Okendo plazan puzgarriak

Bideo Lagunak

TIEN 21

Etxekotesna elektrikoetan adituak

DENA ORDAINDU

- 6 hilabetetan **interesik gabe**
- 12 hilabetetan **interesik gabe**
- 21 hilabetetan (UTB%2,23)

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideoilagunak.com

LASARTE-ORIAKO 2014KO LITERATURA LEHIAKETAK

Haur, gazte eta helduentzat
Mikrokontakizunak, ipuina eta poesia
Oinarriak: kultura.lasarte-oria.org

EPEA: MAIATZAK 30